



2003/01/17ko prentsa-oharra

BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA SAILKATZEKO INKESTA (BJA) 2002ko 4. hiruhilekoa

OKUPAZIOA JAITSI ETA LANGABEZIA-TASA IGO EGIN DIRA EUSKAL AE-N 2002KO LAUGARREN HIRUHILEKOAN

Azken 12 hilabeteetako balantzeak okupazioaren %3ko gehikuntza eta langabezia-tasaren ia ehuneko puntu bateko hazkundera azaltzen ditu.

Eustatek zabaltzen duen Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) sailkatzeko Inkestaren arabera, 2002ko laugarren hiruhilekoan, ia 891.200 landun zenbatu ziren, aurreko hiruhilekoan baino %0,4 gutxiago. Bestalde, langabeen kopurua 88.000 lagunekoa da, eta langabezia-tasa biztanleria aktiboaren %9koa.

2002ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuz, langabetuen taldeak 7.700 laguneko gorakada izan du eta langabezia-tasak ehuneko zazpi hamarrenekoa. Biztanleria landuna eta langabearen bilakaeraren ondorioz, jarduera-tasa pixka bat igo eta %54,6ra heldu da 2002ko laugarren hiruhilekoan.

Langabezia-tasa igo egin da Araba eta Gipuzkoan eta jaitsi Bizkaian

Langabezia-tasa hazi egin da aztertutako ia talde guztietan, Bizkaiko Lurralde Historikoan izan ezik, %9,6 jaitsi baita, duela hiru hilabete baino 4 hamarren gutxiago, altuena izaten jarraitzen duen arren. Araban %7,8 igo da eta Gipuzkoan %8,5, ehuneko bina puntu inguru.

Honenbestez, gizonezkoen langabezia-tasa %6,6ra igo da (ehuneko puntu bat gehiago) eta emakumeena, askoz ere altuagoa, %12,4era (bi hamarren gehiago). Gazteen langabezia-tasa ehuneko bi puntu baino gehiago hazi eta %21era heldu da (gehien hazi dena) eta 16tik 24 urte bitarteko 5 gazte aktibotik bat harrapatzen du.

Euskal AEko langabezia-tasa Euroguneko herrialdeena baino sei hamarren altuagoa da, joan den azaroan %8,4ra iritsi baitziren (EUROSTAT). Beste aldi batzuetan bezala, Europar Batasuneko guztizko tasa Eurogunekoa baino baxuagoa da (% 7,7koa). Biak hazi dira hamarren bana abuztutik.

Euskal AEn 88.000 langabetu zenbatu dira 2002ko bukaeran

Langabetuen kopurua aztertutako ia talde guztietan igo da, aurrean aipatutako Bizkaiko kasuan salbu, 1.900 laguneko jaitsiera izan baitu eta 48.800 laguneko taldeari


eragin dio. Gipuzkoan langabetuen taldea 27.400 lagunekoa da eta Araban 11.700ekoa, beraz, 6.600 eta 2.900 laguneko igoera izan dute, hurrenez hurren.

Duela bi urte edo gehiagotik enplegu bila dabilzan langabetuak 15.300 lagun dira (1.300 gutxiago) eta langabeen guztizkoarekiko proportzioa duela hiru hilabete baino txikiagoa da (%21etik %17 pasatu da aldi horretan).

Biztanleria landunak 3.300 lagun gutxiago ditu hiruhileko honetan

Biztanle landunen kopurua, 2002ko laugarren hiruhileko horretan, 891.200ekoa da, hau da, duela hiru hilabete baino 3.300 gutxiago. Herrialde historikoka, Araban eta Bizkaian 700 eta 1.200 landun gehiago daude, hurrenez hurren, eta Gipuzkoan, aldiz, 5.200 lagun gutxiago.

1. grafikoa: biztanleria landunaren joera, 1985etik



Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta BJA

Biztanleria landunaren jaitsierak gizonezkoei bakarrik eragin die (11.300 gutxiago ari dira lanean) eta emakumeek, aldiz, aurreko emaitza hobetu egin dute (8.100 landun gehiago).

Aurreko hiruhilekoaren aldean, landunen kopurua jaitsi egin da industria eta eraikuntza sektoreetan (5.600 eta 2.400 lagun, hurrenez hurren). Zerbitzuen sektorean 3.500 lagun gehiago dira eta nekazaritzan 1.400 gehiago.

Enplegu-tasa (landunen ehunekoa 16tik 24 urtera bitarteko biztanleriaren guztizkoarekiko) %62,8an kokatu da, duela hiru hilabete baino ehuneko 2 hamarren gutxiago. Lan egiten duten gizonezkoen proportzioa lan egiteko adina dutenekiko

%75,1era jaitsi da (ehuneko 1,4 puntu gutxiago) eta emakumeena, aldiz, %50,4ra igo da (puntu bat baino gehiago).

Herrialde historikoka, enplegu-tasarik altuena Arabak du oraindik ere, % 67,7koa, puntu erdi hazi baita. Bizkaikoa %60,2koa da eta ia ez da aldatu (ehuneko +0,1 puntu). Azkenik, Gipuzkoakoa puntu bat jaitsi eta %65,1era heldu da.

Erreferentziazat etxeguneak hartuz gero, aktibo guztiak langabezian dituzten etxeguneak 800 gutxiago dira, eta kide aktibo guztiak lanean dituzten etxeguneak berriz, 6.300 gutxiago.

Duela urtebete baino 26.400 biztanle landun gehiago eta hazkundeak hiru herrialdeetan

Biztanleria landuna hazi egin da, 2001eko laugarren hiruhilekoaren aldean eta 26.400 landun gehiago dira, hau da, %3. Igoera hori %6 ingurukoa izan da emakumezkoentzat, eta %1ekoa, gizonezkoentzat. Lurralde Historikoka, hazkunderik garrantzitsuena Bizkaikoa izan da (%+4,3) eta Araba eta Gipuzkoakoak ia %2koak izan dira azken 12 hilabeteetan.

Azken urtean zehar, berriro ere jaitsi egin da landunen kopurua industrian, %3,9 jaitsi da landunen kopurua sektorean, eta igo egin da eraikuntzaren eta zerbitzuen sektoreetan, %10,6 eta %4,7, hurrenez hurren. Aldi horretan berean, enplegu-tasa ehuneko 2,2 puntu igo da.

Langabezia-tasa ehuneko 9 hamarren hazi da azken urtean

Azken 12 hilabeteotan langabezia-tasa ehuneko 0,9 puntu hazi da, puntu bat baino zertxobait gehiago gizonezkoentzat eta 3 hamarren emakumezkoentzat. Herrialdeka, igoera 2,1 puntukoa izan da Araban eta Gipuzkoan, eta Bizkaian 2 hamarren jaitsi da tasa.

BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA SAILKATZEKO INKESTA BJA

	2002eko 4. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoaren aldean		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko beraren aldean	
	Milakoak	%	Milakoak	%	Milakoak	%
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.793,5		-1,0		-1,5	
AKTIBOAK/ IHARDUERA TASA	979,2	54,6	+4,5	+0,3	+38,8	+2,2
Gizonezkoak	573,0	66,0	-5,5	-0,5	+12,8	+1,5
Emakumezkoak	406,2	43,9	+9,9	+1,0	+26,0	+2,8
BIZTANLERIA LANDUNA/ ENPLEGU-TASA	891,2	62,8	-3,3	-0,2	+26,4	+2,2
Gizonezkoak	535,2	75,1	-11,3	-1,4	+4,8	+1,1
Emakumezkoak	356,0	50,4	+8,1	+1,1	+21,6	+3,3
Araba	137,4	67,7	+0,7	+0,5	+2,4	+1,5
Bizkaia	458,4	60,2	+1,2	+0,1	+19,1	+2,9
Gipuzkoa	295,4	65,1	-5,2	-1,0	+4,9	+1,4
Nekazaritza	17,6		+1,4		+4,2	
Industria	248,2		-5,6		-10,1	
Eraikuntza	81,2		-2,4		+7,8	
Zerbitzuak	544,2		+3,5		+24,5	
LANGABEAK/ LANGABEZI-TASAK	88,0	9,0	+7,7	+0,7	+12,4	+0,9
Gizonezkoak	37,7	6,6	+5,7	+1,0	+8,0	+1,3
Emakumezkoak	50,2	12,4	+1,9	+0,2	+4,3	+0,3
16 - 24	19,5	21,0	+1,5	+2,3	+2,2	+1,0
25 - 44	56,3	9,7	+8,1	+1,2	+9,9	+1,5
45 eta gehiago	12,1	4,0	-2,0	-0,6	+0,2	-0,1
Araba	11,7	7,8	+2,9	+1,8	+3,5	+2,1
Bizkaia	48,8	9,6	-1,9	-0,4	+1,1	-0,2
Gipuzkoa	27,4	8,5	+6,6	+2,0	+7,7	+2,1
Lehen enplegu bila	14,3	16,3	+2,9		-0,5	
Urte 2 edo gehiago darama enplegu bila	15,3	17,4	-1,3		-4,4	
EZ-AKTIBOAK EZ-AKTIBOTASUN TASA	814,3	45,4	-5,5	-0,3	-40,3	-2,2
Lehen langabetzat hartua	4,7		-0,2		-14,6	
ETXEBIZITZAK	735,7		+1,4		+19,7	
Aktibo 1 edo gehiagoko etxebizitzak	530,1	72,1	-0,4		+15,5	
- Guztiak okupatuak	453,8	61,7	-6,3		+3,9	
- Guztiak langabeak	18,5	2,5	-0,8		+0,2	
Aktiborik gabeko etxebizitzak	205,6	27,9	+1,8		+4,1	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Orrialdea: 4(4)

 Eustat	Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastián kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel:+34-945-01 75 00. Faxa:+34-945-01 75 01. E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Elena Goni Rementeria Tel:+34-945-01 75 33. Faxa:+34-945-01 75 01. Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--